

« IKUSIRIK Iruñeko Udalaren 2023ko aurrekontu luzatuaren aldagetari buruzko espedientean jasota dauden langileria-gastuak finantzatzeko Nafarroako Foru Komunitateak emandako dirulaguntzei buruzko agiriak (Alkatetzak 2022-12-30eko ebazpenaren bidez onetsi zuen aldageta hori, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat, dirulaguntzekin finantzatutako proiektuen gastuetarako beharrezkoa baita) eta indarreko aurrekontua betetzeko oinarriekin bat, HAU ERABAKITZEN DA:

1.- Kreditu-sorrera onestea 70/24120/131010 partidan (Gizarte Enplegu Babestua - Aldi baterako lan-kontratudunen oinarritzko ordainsariak), 2.142.201,60 euroko zenbatekoarekin, Nafarroako Foru Komunitateko Gizarte Enplegurako dirulaguntza arrunten bidez finantzatuta (diru-sarreraren 20/45050 partida).

2.- Kreditu-sorrera onestea 21/21100/161052 partidan (Pentsioak eta Osasun eta farmazia laguntza – Erretiro patronala), 1.211.953,67 euroko zenbatekoarekin, Nafarroako Foru Komunitateko eskubide pasiboak finantzatzeko dirulaguntza arrunten bidez finantzatuta (diru-sarreraren 20/45063 partida).

3.- Kreditu-sorrera onestea 80/32610/120090 partidan (Musika Eskola – Funtzionarioen oinarritzko ordainsariak), 396.781,83 euroko zenbatekoarekin, Nafarroako Foru Komunitateko beste dirulaguntza arrunt batzuen bidez finantzatuta (diru-sarreraren 20/45082 partida).